

SALBATORE
MITXELENA

ikastola

2005eko ekaina • 17. zenbakia

Eguneroko azokan...





**MARGOKETAK OROKORREAN
ETXE-AURREKALDEAK
PAPEREZTATZEAK ETA LAKATZEAK
MOKETA SARTZEAK
ESTUKATUAK ETA SINTASOLA**

Eska ezazu zeure aurrekontua inongo konpromezurik gabe

Tel. 943 13 24 19
Mobila: 607 14 00 98

Mitxelena kalea, 9 - 4. A
20800 ZARAUTZ



**ELECTRICIDAD
ERNE** S. Coop. Ltda.

INSTALAZIOAK

Industrietan
Etxeetan
Komertzioetan

ILUMINAZIOAK

Argiteri publikoak eta urbanizazioak
Babeserako armairu elektrikoak
banaketa eta automatismoak

IKERKETAK, PROIEKTOAK ETA AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Bizkaia kalea, 43 • Telak.: 943 83 14 00 - 943 83 40 08 • Faxa: 943 13 10 70
20800 ZARAUTZ

Agurra

40 urte bete ditugu dagoeneko. Berrogei. Ez dira gu-txi, ondo pentsatzen jarrita. Pertsonen kasuan adibidez, norbait berrogei urtetara iristen denean, horrelako krisiren bat edo sofrizten duela esaten da. Berrogei urteen krisia deitzen diote komunikabideetako intelektualek. Bat batean eta kolpera, ispiluak, oraindik gazteak garenaren gezur be-deinkatu hori errepikatzeari uko egin eta, ez gazte ajatu, ez bihotzean gazte, ez binagre santurik onartzen ez digunean gertatzen ohi dena. Une larri horretan loratzen da krisiaren galdera bere gordintasun eta biluztasunean: joño, gaztea ez baldin banaiz, zer naiz orduan?

Suspentsea mantentzearen, ez dugu oraindik erantzuna emango. Izan ere, berrogeiak beste hausnarketa batzuetarako bidea ere ematen digu. Bibliokoagoak, adibidez. Moises eta bere koadrilak berrogei urte luze pasa omen zituzten desertuan Jainkoak Agindutako Lurralde Santura heldu aurretik. Barkatuko didazue fededunak zaretanok eta ez zaretanok, berdintasunak topatzen badituzte. Ze nahiz eta beharbada Herri Aukeratuak ez izan, desertua zeharkatzen duten ibilaldi luzei buruz zerbait badakigula ikastolan onartu beharko didazue. Orain, berrogei urte hauen ondoren, erreka bestaldeko Agindutako Lurraldera iritsiko garen ala ez, ez daukat horren garbi oraingoz. Jainkoarekin eta Deabruarekin batera itunak egitea ez da inoiz erraza izan, badakizue.

Baina beno, ez naiz apokaliptikoen jarriko. Gainera, hasierako galdera ez dugu oraindik erantzun. Ea, goazen hotzean pentsatzea. Jarri ispilu aurrean berriz. Ondo da, berrogei urte bete ditugu. Eta zer? Zenbaki bat baino ez da, ez larritu. Ez gara horregatik zaharrak. Berrogei laurogeiren erdia da, bai, baina hogeiren bikoitza ere bai. Krisian baino, bidegurutzean gaudela esango nuke horretaz. Ikastola etorkizunean zer izango den aukeratu behar dugula, alegia. Ispiluari begiratuta laurogei urteko agure edo atso baten erdia ikusten dugun, ala hogeiturogei urteko bi gaztekin adi-nako sasoia dugula sinesten dugun.

Hartu, bada, zuen denbora. Ispiluaren aurrean hausnartu. Lasai, tentuz. Eta aukeratu. Bi erantzunek balio dute. Hori bai, gauza bakarra izan garbi: bietako bakarra irtengo da desertutik.



ORRIZ-ORRI

4 IKASTOLA

Eraikin berria

6 IKASLEAK

PISA frogak

9 NOR-NORI-NORK

Larrarte, Salegi, Ezeiza

10 IKASTOLA

40 urte labur

12 GERO ARTE

Luke

13 KIROLEZ-KIROL

Maisu Pepe memoriale

Gurasoei S.O.S. deia

14 Urteko balantze orokorra

17 BERRIAK

Txala

Kantuz kantu

Kaskoa buruan eta ibili munduan

18 Txapasek bizarra galdu zueneko

Orereta ikastolarekin harremanetan

Gero arte

Argitaratzailea: Salvatore Mitxelena Ikastola.

Koordinazioa eta kudeaketa:

Komunikazio eta Promozio Taldea.

Diseinu eta maketazioa: Hizki Inprimategia.

Copy right-a:

«Salvatore Mitxelena Ikastola» aldizkaria.

Deposito legala: SS 1342/97

Tirada: 1.500 ale.

Ikastolaren hedapen proiektua

1. Sarrera

Denok dakigu ikastola txiki geratu zaigula, eta horregatik erabaki zuen batzarrak ikastolaren ekialdean eraikinaren luzapena egitea. Baina ez hori bakarrik, kirolguneen beharra ere nabaria denez, batez ere estaliena, kiroldegia egitea ere adostu zuen batzarrak, horretarako kokapen finkorik zehaztu ez bazen ere.

Leku falta dela-eta, ikastolaren lurren inguruari begira hasi ginen batzordekideak, ea ikastolaren lurretatik kanpo kiroldegia eraiki ote genezakeen. Hainbat saioren ondoren errekaen bestaldeko lurrek aukera paregabea eskaintzen zigutela ikusi genuen, eta gainera, bertako lur jabeek gurekin lur trukaketa egiteko prestutasuna zeukatela jakin arazi ziguten. Hari horri tiraka, Iñurritzarentzat proiektu global bat aurkeztu zigun Alkorta arkitektoak. Gure arazoak konpontzen zituen proiektuak, eta horrez gain, Iñurritza auzoari eta Zarauzko herriari asko eskaintzen ziola iruditu zitzaigun.

2. Gure arazoaren konponbidea

Lur trukaketaren ondorioz ikastolak gaur egun dauzkan lurak baino gehiago edukiko ditu aurrerantzean. Beraz, kirolgune gehiago eta kiroldegi estali berria eraiki ahal izateko lurak edukiko ditugu.

Beheko irudian ikus daitezke ikastolako lurrek daukaten zabalera, kolore ilunez inguratuta daude hain zuzen ere. Alboko lurak marra urdinskaz inguratuta ikus daitezke, eta bere gainean ikastolako lurrek betetzen dutena jarri dugu. Hau da, urdinskaz inguratuta ikusten den guztia izango litzateke trukea egitearekin lortuko genukeen aldea. Kirolgune edota behar duguna eraikitzeko erabili ahal izango genukena. Bestalde, gaur egun eraikiko litzatekeen ikastola berriak espazioak hobeto aprobetxatuko litzuzke, eta funtzionaltasun gutxiko eta zaharkitutako eraikinaren ordez berri eta funtzionala edukiko genuke. Alde guztietatik onurak ikusten dizkiogu proiektuari.



Kale Nagusia, 2
Tel. 943 13 24 02 • ZARAUTZ



Egaña, 13 (sarrera Araba kaletik)
20.800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)
Tel/fax. 943 83 36 19


3. Finantzaketa

Ikastola berria eraiki ahal izateko beharrezkoa den dirua gaur egun ikastolako lurretan egingo diren etxe eta lokalek emandako etekinetatik lortzea da asmoa eta helburua. Ikastolako lurretan eraiki daitezkeen etxeekin beharrezkoa duguna baino askoz gehiago lor daiteke, baina gure asmoa ez da etekin ekonomikoa, finantzaketa baizik. Horregatik esan diogu Udalari eraiki nahi ditugun etxebizitzak, ahal den neurrian, babestutako etxeak izatea nahi dugula. Libre batzuen bidez finantzaketa lortu eta hortik gorako guztiak babestua izan daitezke. Edo tasatuen bidez ere planteatu daiteke, hau da, prezioan muga ezarri eta etekinak finantzaketa lortzera mugatu. Guk ez daukagu beste interesik.

Hala ere, eta normala da, Eguzki-izarra eremuko lur jabeek etekin ekonomikoa nahi dute, eta beraiei dagokien zatiarekin zer eta nola egin Udala eta lur jabeen artean adostu beharreko kontua da.

4. Geroko egoera

Ikastola berria eraiki ondoren, Iñurritzak parke berria irabaziko luke. Gaur egun ikastolaren kirolgunea den eremuan, hego aldean, parke publiko berria sortuko litzateke eta zubi baten bidez komunikatuko lirateke gainera parke berria eta ikastola berria, bide gorria ikastolaren eremuraino luzatuz. Horrez gain, ikastolaren jabetzako lurak, ikastolaren ohiko jokabidea jarraituz, herritarrek erabili ahal izango dituzte, eta bertako kirolguneak eta kiroldegi estalia ere auzotarrek aprobetxatu ahal izango dituzte.



Ameztoji analak

Urdaneta Bidea, 9 • ZARAUTZ

Tel. 943 83 27 53

KALITATEZKO PLATER PRESTATUAK

Ikasleen ebaluazioak

Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Proiektua (PISA Proiektua) eta Hezkuntza Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkartea (IEA / TIMSS Proiektua)



TIMSS
2003



Ikastolako ikasle talde desberdinek, 2003. urteko maiatzean Nazioartean pasa ziren proba desberdinetan parte hartu zuten (emaitzak 04-05 ikasturtean plazaratu dira):

1. ELGAK (OECD) antolatutako PISA ikerketa. Aztergai nagusia matematika izan arren, erabilitako probetan irakurmena, problemen ebazpena eta natur zientziei buruzko gai batzuk sartu ziren. Proba honetan 15 urtetako ikasleek parte hartu zuten, (gehienbat DBH 4. mailakoak)

2. IEAk antolatutako proba (TIMSS). Matematikan eta Zientzietan ikasleek duten errendimenduari buruzko emaitzak baloratu dira. DBHko 2. mailako ikasleek parte hartu zuten.

3. Europako Kontseiluko "Hizkuntzen Erreferentzi Markoa" eta ALTEK (*Association of Language Testers in Europe*) zehaztutako maila kontutan harturik, ISEI-IVEIk (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) burututako euskara proba. DBHko 4. mailako ikasleek hartu zuten parte.

1. PISA

Ikerketaren barruan 57 herrialde desberdinek hartu zuten parte -Euskadi barne-. Euskadin esate baterako, matematikako proban parte hartu zuten ikasleen kopurua 3.909koa izan zen, ikerketa honen dimentsioa oso altua izan delarik.

Ondorengo honetan azaltzen ditugun emaitzak aldaratu eta ondo interpretatu ahal izateko aspektu hauek kontutan hartu beharko dira:

- ELGAKo herrien batezbestekoa (OECD).
HELGAKo herrialdeak: Alemania, Austria, Australia, Belgika, Kanada, Korea, Danimarka, Espainia, Estatu Batuak, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Japonia, Luxenburgo, Mexiko, Norvegia, Zelanda Berria, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublika, Eslovenia, Suedia, Suitza eta Turkia.
- Euskal Autonomia Erkideko ikaslekoa (EUSKADI).
- Familiaren sozio-ekonomiko eta kultur indize berdina duen ikasleria (SEKM).
- Salvatore Mitxelena ikastola (IKASTOLA)

MATEMATIKA

Matematikako eskalan parte hartu duten herri guztien batezbesteko 500 puntukoa izan zela kontutan harturik, hona hemen lortutako emaitza orokorrak:

OECD	EUSKADI	SEKM	IKASTOLA
500	502	510	521,6

Matematika proba honetan ebaluatu diren eskalak hauek izan dira: 1. Aldaketa eta er-lazioak. 2. Espazioa eta forma. 3. Probabilitatea. 4. Kantitatea.

Hona hemen lortutako emaitzak:

Eskalak	OECD	EUSKADI	SEKM	IKASTOLA
Aldaketa eta erlazioak	499	499	507	522
Espazio eta forma	496	493	499	518
Probabilitatea	502	503	510	524
Kantitatea	501	511	519	518

Irakurmena

Irakurmena proba honetan baloratu da: *Idatzitako testuak ulertu, erabili eta hausnartu helburu batzuk lortzeko; norberaren xedeak lortu, pertsonak dituen potentziala eta ezaguera garatu eta gizartean parte hartu.*

Hona hemen emaitzak:

OECD	EUSKADI	SEKM	IKASTOLA
494	497	501	503,9

Zientzia

Zientzia proba honetan baloratu da: *Galdegaia* identifikatzeko eta probetatik ondorioak ateratzeko ezagutza zientifikoa erabiltzeko gaitasuna. Helburua hau da: natura eta berengan gizabanak sortzen dituen aldaketak ulertu eta erabakiak hartzen lagundu.

Problemen ebazpena

Proba honetan hau da baloratu da: *Problemen ebazpena* ezagutza-prozesuak diziplina anitzeko egoerei aurre egin eta ebazteko erabiltzen dituen gaitasun indibiduala da. Egoera horien ebazpenenerako bideak, jakina ez izateaz gain, arlo desberdinetatik aplikatu daitezkeen ezagutzak behar ditu, eta ez Matematikatik, Zientzietatik edo Irakurketatik bakarrik.

Beste zenbait

- Aipatu behar dugu ere, ikasleei beren matematika ikasketaren alderdi desberdinei buruzko hainbat galdera egin zitzaizkiela, hala nola, matematikako autokontzeptua, konfiantza eta segurtasuna matematiketan, matematikak sortzen duen antsietatea, ikasketa estrategiak eta matematikako eskola saioek daukaten giroa.
- Azkenik eta modu orokor batez "Nola sentitzen dira ikasleak ikastetxean" galdetu zen. Hona hemen ikastolako emaitzak:

IKASTOLA	Erabat ados	Ados	Aurka	Guztiz aurka
Basterturik sentitzen naiz	0	5,88	23,5	70,5
Erraz egiten ditut lagunak	9,09	81,8	9,09	0
Etxean bezala sentitzen naiz	3,03	33,3	45,4	18,1
Gogaturik eta tokiz kanpo sentitzen naiz	3,03	15,01	33,3	48,4
Besteentzat atsegina naiz	3,03	84,04	12,1	0
Bakarrik sentitzen naiz	0	5,88	17,6	76,04

Hona hemen emaitzak:

OECD	EUSKADI	SEKM	IKASTOLA
500	484	490	504,9

Hona hemen emaitzak:

OECD	EUSKADI	SEKM	IKASTOLA
500	498	503	507

2. TIMSS IKERKETA

IEA erakundeak prestatutako proba izan da. DBHko 2. mailan aplikatu zen Matematika eta Zientzien gaitasunak baloratu ahal izateko. Ondoren azaltzen ditugun tauletan aspektu hauek kontutan hartu behar dira:

- Parte hartu duten herrien batezbestekoa (TIMSS).
- Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleria (EUSKADI).
- Familien ikasketa maila berdina duen ikasle taldea (SFII)
- Salvatore Mitxelena ikastola (IKASTOLA)

Matematika

Hona hemen emaitza orokorrak:

TIMSS	EUSKADI	SFII	IKASTOLA
467	487	492	526,7

Arlo honetan ebaluatu diren eskala desberdinetan, emaitzak honako hauek izan dira:

Eskalak	TIMSS	EUSKADI	SFII	IKASTOLA
Zenbakiak	467	490	495	525,9
Algebra	467	490	496	526,8
Neurketa	467	488	494	527,0
Geometria	467	456	461	500,6
Datuak	467	499	502	517,2

Zientziak

Proba honetan ezagutza zehatzak baloratu dira: Bizi tzaren zientzia, Kimika, Fisika, Lur Zientziak (geologia) eta Ingurumen Zientziak.

Hona hemen emaitza orokorrak:

TIMSS	EUSKADI	SFII	IKASTOLA
474	489	492	501,4

Arlo honetan ebaluatu diren eskala desberdinetan, emaitzak honako hauek izan dira:

Edukiak	TIMSS	EUSKADI	SFII	IKASTOLA
Bizitzaren zientziak	474	492	493	508,3
Kimika	474	472	477	488,9
Fisika	474	483	490	511,0
Lur zientziak	474	506	510	524,6
Ingurumen zientziak	474	494	495	507,1

Beste zenbait

• Ikasleekin erlazionaturik beste zenbait faktore baloratu dira: Matematika eta Zientzien autokontzeptua, Matematika eta Zientzien balorazioa eta Matematika eta Zientzien emaitzak ordenagailuen erabileraren arabera. Hona hemen azken aspektu honen emaitzak:

Ordenagailuaren erabilera	TIMSS	EUSKADI	IKASTOLA
Etxean eta ikastetxean	%39 / 485	%70 / 494	%92 / 524,4
Etxean baina ikastetxean ez	%18 / 470	%16 / 484	%8,0 / 553

3. EUSKARA PROBA

Ikerketa hau DBHko 4. mailan aplikatu zen. Baloratu diren eremuak hauek izan dira: Irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamena. Emaitzak hauek izan dira:

%	EUSKADI (B eredua)	EUSKADI (D eredua)	IKASTOLA
Ez gaindituak	72,5	42,8	28
Gaindituak	27,5	57,2	72

Oharra: Hiru ikerketa hauei buruz informazio gehiago eskuratzeko: <http://www.isei-ivei.net>

SERIGRAFIA eta TANPOGRAFIA
CHAPUCETTI

**Kamisetak, sudaderak
 poloak, biserak, txandalak
 sukaldari amantalak, jaietako zapiak, e.a.**

ARROPA DENDA

**Metxeroak, boligrafoak
 arkatzak, agendak, giltzariak
 flexometroak, pegatinak, e.a.**

**Tel./Faxa: 943 130525
 Mug.: 652 770901**

**Zigordia kalea, 52
 Tren Geltoki ondoan**

ZARAUTZ

Nor-nori-nork

Larrarte, Salegi, Ezeiza

Ezeiza Larrañaga

Ezeiza Larrañaga sendia da hau. Makina bat irakasleren eskuetatik pasa ziren bost seme-alaba hauek. Aita Guraso Batzordean buru-belarri sartuta egon zen. Lan asko egin duen jende dexente dagoela...!

Pedro eta Rosariok osatutako familia: Miren (1968), Inma (1975), Jexux (1976), Agurtzane (1978) eta Kepa (1980).



Salegitarrak

Zarauztarra izanda salegitar bat behintzat ezagutzen duzuela esan beharrik ez duzue. Horrek adierazten digu Salegi abizena oso ezaguna dela gure herrian. Iñaxio Salegik eta Maritxu Torregarai osatu duten familatik ere ezagunen bat izango duzue tartean. Zazpi seme-alaba eta guztiak ikastolatik pasatakoak. Meritua gurasoek eta baita irakasleek ere! Hementxe daude guztiak: Gurutze, Aitor, Izaskun, Iñaki, Xabier, Jon eta Amaia. Eta bilobaren bat edo beste ere ikusten dugu inguru hauetan...



Ugarte Larrarte

Maika eta Jonen etxe aldean ere ia "eskola txikia" jartzeko moduan dira. Lehenik Urtzi jaio zen (azterketa garaia dela eta ez da argazkian azaltzen); ondoren Jare eta Xuban bikotea eta, azkenik, Unax. Afalorduan zer kontatua izango dute etxe honetan, baina...hitz egiteko txanda nola hartu?...



